



TEXTO DEL PROYECTO DE LEY EN EUSKERA /
LEGE PROIEKTUAREN TESTUA EUSKARAZ.

PROYECTO DE LEY DE QUINTA MODIFICACIÓN DE LA
LEY DE ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO.
EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA ALDATZEKO LEGE-PROIEKTUA
(BOSGARREN ALDAKETA)

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEN LEGEA ALDATZEKO
LEGE-PROIEKTUA
(BOSGARREN ALDAKETA)

ZIOEN AZALPENA

-I-

Konstituzioan herritarrei gai publikoetan parte hartzeko eskubidea aitortzen zaie, eta hori egiteko bidea aldiari aldiko bozketa unibertsal bidezko hauteskundeak dira. Eskubide hori askatasun osoz gauzatu ahal izateko, oinarri-oinarrizkoa da hauteskunde-prozesua gardena, segurua eta objektiboa izatea, eta, gainera, prozesua aurrera eramateko orduan, hauteskundeetako ordezkariak karguak lortu ahal izateko berdintasun- eta neutraltasun-printzipioak bete beharko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hauteskunde-prozesu demokratiko orok jarraitu beharreko printzipio eta berme horiek Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeek ekainaren 15eko 5/1990 Legean daude jasota; lege horrek Autonomia Estatutua garatzen du, eta kontuan izan behar da estatutuak autonomia-erkidegoari eskumen eksklusiboa ematen diola ondorengo gaian: *“Eusko Legebiltzarrari, Batzar Nagusiei eta foru-aldundiei eragiten dien barruko hauteskunde-legedia arautzea, baina Estatutu honen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera Lurralde Historikoei dagozkien ahalmenei kalterik eragin gabe”*.

Gorago aipaturiko 5/1990 Legea onartu zenetik, zenbait aldaketa izan ditu lege horrek, eta Eusko Legebiltzarreko lau legetan jaso dira: ekainaren 19ko 15/1998 Legea, urriaren 4ko 6/2000 Legea, martxoaren 28ko 1/2003 Legea, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Aldaketa horiek hauteskundeak buruzko euskal legea politikaren eta gizartearen egoerara egokitzeko egin dira, indarrean zen legediarekin bat jarritz. Une honetan, 5/1990 Legea aldatu beharra dagoela ikusten da, hainbat arrazoi direla eta: batetik, lege hori indarrean jarri zen urtetik izandako hauteskunde-prozesu autonomikoetan lortutako esperientzia; bestetik, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Estatuko Hauteskundeek Araubide Orokorrari buruzkoak, autonomia-erkidegoko legeari eragiten dioten oinarritzko kontuetan egindako hainbat aldaketa; Konstituzio Auzitegiaren doktrina ere kontuan hartu beharrekoa da, eta baita hauteskunde-administrazioak egindako gomendioak ere.

5/1990 Legea egin beharreko aldaketak jarraian aipatzen diren kontuen ingurukoak dira, eta duten garrantziagatik, xehekiago azalduko dira.

-II-

Lege hau Estatuko Hauteskundeek Araubide Orokorrari buruzkoan egindako azkeneko aldaketetara egokitu beharrik Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeek Legea eragiten du, Legebiltzarrerako hauteskundeek legea lege organikoko artikuluetan esaten direnekin bat ez datorrelako, eta, gainera, lege organikoak gai berri batzuk, Legebiltzarrekoan jasotzen ez direnak, arautzen dituelako.

Zehazki esanda, urtarrilaren 28ko 3/2011 Lege Organikoak, Hauteskundeek Araubide Orokorra Aldatzeari buruzkoak, hain zuzen ere ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoan, Alderdi Politikoei buruzkoan, hautagai-zerrendak legez kanpo uzteari buruz esaten direnez ari denean, oinarritzko gaiak buruzko bloke bat erantsi du, epai bidez (nahiz eta irmoa ez izan) kondenatu dituzten pertsonen hautagai izateko eskubidea kentzearen inguruan, baldin eta matxinada edo terrorismo delitua gertatu bada, eta epaiak hautetsi izateko desgaikuntza-zigorra edo enplegu edo kargualdi publikoa eteteko zigorra jarri badu. Gai hau oinarritzko kontua da, eta eskuartearen dugun legearen artikuluetan sartu beharra dago. Era berean, eta aipatu dugun 2011ko lege organiko horren ondorio gisa, gerora etorritako bateraezintasunen beste arrazoi bat ere jaso da lege honetan, hautagai-zerrendak legez kanpo uzteaz ari garela, eta ondorengoei eragingo die: hauteskundeak izan eta gero epai irmo bidez legez kanpo utzitako alderdi, federazio edo koalizioek aurkeztutako zerrendetan joateagatik Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide hautatu dituztenei; edo epai irmo bidez, legez kanpo utzitako alderdi bati loturik daudela jotako hauteskunde-taldeek aurkeztutako hautagai-zerrendetatik hautatutako legebiltzarkideei. Kasu horietan, kargudunek hamabost eguneko epea izango dute Autonomia

Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen aurrean haien alderdi politikoa legez kanpo uztera eraman zuten motibazioen kausak errefusatzeko.

Urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak, ekainaren 19ko 5/1985 Lege organikoa, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzkoa, aldatzekoak, azken horren oinarritzko artikuluko batzuk eta oinarritzkoak ez zirenak ere aldatu zituen, kontu tekniko batzuen inguruan eta beste hobekuntza batzuen inguruan, eta eskuartean dugun legean, beste batzuen artean, ondorengoak sartu ditu: autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordeak doktrina bateratzeko duen ahala indartzea, eskualdeetako hauteskunde-batzordeen akordioez ari garela; eta hauteskunde-batzordeek errekurtsuez ebazteko duten epea zehaztea, bai hauteskunde-garaian, bai epe horretatik kanpora. Lege honetan garrantzi handiagoko beste arlo batzuk ere jasotzen dira, ondorengo gaiekin zerikusia dutenak: mahaiak eratzea, Eusko Jaurlaritzaren kanpaina instituzionala, hauteskunde-kanpaina eta kanpaina-aurrean iragarkiak eta propaganda egitea, hedabide pribatuetan hauteskunderi buruzko informazioa ematea, bozketa eta botoak zenbatzeko prozesua, eta hauteskundeetako bigarren aurrerakina ordaintzea.

Hauteskunde-mahaiak eratzeari dagokionez, hauteskunde-mahaiko kide izateko adina hirurogeita hamar urtera arte luzatu da, baina adin hori izanik ere, hautesle horientzat ez da derrigorrezkoa izango kide izatea. Era berean, mahaiko kide izatea egokitu eta aitzakiaren bat jarri duenari ukatu egiten bazaio arrazoiak, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeek ukatzeko arrazoiak zein diren azaldu beharko dute, labur bada ere.

Lege honen xedapen-zatia herritarrei botoa emateko eskubidearen eta hauteskunde-prozeduraren gaineko hainbat gairi buruzko informazioa ematera mugatzen da, aipatutako 2/2011 Lege Organikoaren edukian egindako egokitzapenak tarteko. Hauteskunde-kanpainei dagokienez, esan beharrekoa da hobetu egin dela hauteskunderi buruzko lege autonomikoaren 71. artikulua idazkera, argi eta garbi bereiztu baitira hauteskunde-kanpaina eta kanpaina-aurrea; hori dela eta, hauteskunderi buruzko propaganda kanpainak dirauen artean baino ezin izango da egin, eta, ondorioz, kanpaina-aurrean debekaturik egongo dira iragarkiak jarri eta propaganda egitea (kartelen bidez edo prentsa eta irratietan halakoak sarturik). Horren helburua informazioa sustatzea eta alderdi politikoen artean eztabaida programatikoa areagotzea da, eta gainera, kostuak gutxiagotzea. Murrizketa horretan sakontzen da, ehuneko 20 jaisten baita hautagaitzek egin dezaketen gastua, hauteskunde-kanpainaren baitan, baimendutako eremu komertzialetan kartelak jarritz hauteskunde-propaganda egiteko.

Hedabide pribatuetan hauteskunderi buruzko informazioa zabaltzeari dagokionez, hedabide horiek hauteskunde-kanpaina bete beharreko arau eta printzipioak zehaztu dira, hain zuzen ere hedabide publikoentzat araututakoaren ildotik, eta hori guztia Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak kontrolatuko du.

Aipamen berezia merezi du bozkatzeko aukeretan izandako aldaketa batek; izan ere, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez arautu beharko baitu ikusmen-arazoak dituztenek erraztasunez bozkatu ahal izateko sistema bat. Horrez gainera, hautesleek zuzenean sar dezakete boto-papera kutxan. Orain arte, hauteskunde-mahaiko buruak soilik sar zezakeen. Bukatzeko, mahaiko botoak zenbatzeko orduan boto bat noiz izango den baliogabea erabakitzeko kasuak argitu egin dira, Hauteskunde Batzorde Nagusiak emandako azkeneko instrukzioaren ildotik.

Hauteskundeetako bigarren aurrerakina eta hauteskundeetako diru-laguntzak ordaintzeari dagokionez, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hala erabakitzen badu, hautagaitzak erakutsi beharko du legebiltzarkide kargua benetan hartu dela eta kargu horretan diharduela.

-III-

Lege hau Konstituzio Auzitegiaren eta hauteskunde-administrazioak proposatutako oharren doktrinan sartzeak suposatzen du kontuan izan behar dela, hala Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 1eko

149/2000 epaia, hauteskunde-batzordeetako administrazio-jardueraren legezkotasunaren kontrol judizialari buruzkoa, nola autonomia-erkidegoko hauteskunde-batzordearen erabakiak, hautaezintasun-kausei buruzko hauteskunde legearen hainbat alderdi argitzeari buruzkoak. Horrekin batera, kontuan hartu da Hauteskunde Batzorde Nagusiak hauteskunde-garaian aginte publikoek egiten dituzten kanpaina instituzionalen mugen inguruan esandakoa, eta baita Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak egindako iradokizuna ere, kanpaina horien inguruan zehapen-araubide bat egotea eskatzen baitzuen. Esandakoaren ondorioz, hauteskunde-garaian erakundeek ezin izango dute kanpainarik egin aginte publikoek lortutakoei edo egindako lanei buruz, ez eta obra edo zerbitzurik inauguratu ere, nahiz eta zerbitzu edo obra horiek funtzionamenduan hasteko aukera egongo den garai horretan.

-IV-

Alde batetik, beste bi hautaezintasun-arrazoi gehitu dira euskal sozietate publikoetan edo nagusiki horien parte-hartzea duten sozietateetan lehendakari, zuzendari nagusi, kudeatzaile edo pareko beste edozein kargu dutenentzat, bai eta Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusiarentzat, erakunde hori osatzen duten sozietate publikoetako zuzendarientzat eta organikoki sozietate horietan kokatzen diren komunikabideetako zuzendarientzat. Hori guztia estatuko, foru-aldundietako edo udaletako sozietate publikoetan pareko karguak dituztenen hautaezintasunarekin edo RTVE korporazioaren lurralde-ordezkarien hautaezintasunarekin bat, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legean biltzen denaren arabera.

Bestalde, lege honetan hautagarri gisa definitzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zuzendariordea eta lurralde-ordezkaria, indarrean dagoen Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak funtzionarioen arteko izendapen askeko, alegia, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren esku-hartzerik gabeko, lanpostu gisa hartzen dituelako.

Indarrean den otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoaren, ildotik, beste batzuen artean emakumeen aldeko zenbait ekintza positibo jaso dira, autonomia-erkidegoetako hauteskondeez ari garela; izan ere, hauteskunde-mahaietan egon beharra izatetik salbuesteko arrazoi gehiago zehaztu dira, eta ondorioz, haurdunaldian aurrera eginda daudenek eta bularra emateko garaian direnek ez dute mahaietan egon beharrik izango.

Lege honetan jasotzen den beste hobekuntza tekniko bat 5/1990 Legean pezetatan ematen ziren kopuru guztiak eurotara bihurtzea izan da, eta gainera, bihurtze hori euro konstantetan egin da. Esandakoez gainera, legeak orain aukera ematen du hauteskondeei buruzko dokumentazioa baliabide elektronikoak erabilia betetzeko, eta horrekin batera, erakunde batzuen izenak eguneratu egin dira, aldatuta zeudelako.

-V-

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen xedapenen artean bi xedapen gehigarri erantsi dira. Lehen Xedapen Gehigarriak euro konstanteetan eguneratzen ditu lege honen 151.1 eta 2 artikuluan aurreikusitako hautagaiantzako diru-laguntzen zenbateko guztiak. Eta Bigarren Xedapen Gehigarriak Eusko Jaurlaritzari gaitasuna eman dio erakustaldi eta probak egin ditzan Legebiltzarrerako hauteskundeetan, bozkatu, botoak zenbatu edo hauteskunde-mahaiak kudeatu ahal izateko beste sistema elektroniko batzuekin, etorkizunean horiek abian jartzea komeni den edo ez ikusteko.

Esandakoez gainera, lege honetan ondoren deskribatzen diren beste xedapen batzuk ere jaso dira. Lehen xedapen iragankorrak, kontuan izanda krisi ekonomikoko garai batean bizi garela, hautagai-zerrendei hauteskunde-garaian egin dezaketan gastuari murrizketa nabarmena jarri die; bigarren xedapen iragankorrak, berriz, hautagai-zerrendei eman beharreko diru-laguntzak, boto kopuruaren, jarlekuen eta hauteskunde-barrutiaren arabera ematen direnak, izoztea proposatu du, eta beste

horrenbeste egiten du hauteskundeei buruzko publizitatea eta propaganda bidaltzeko diru-laguntzari dagokionez. Murrizketa horiek guztiak 2009. urtearen ondoren egiten diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan sartuko dira indarrean.

Azkenik, lehen azken xedapenean, Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen zaio erregelamendu bidez gara dezan ezintasunen bat duten pertsonak nola parte hartuko duten Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, bereizkeriarik jasan gabe; hau da, pertsona horiek bozkatu ahal izateko baldintza zehatzak arautuko ditu, irisgarritasunari dagokionez, hain zuzen ere Estatuko legediak arlo horretan dioena garatuta.

Lehen artikulua.- Aldatu egin da ekainaren 15eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen 5/1990 Legearen 4. artikuluko 3. paragrafoaren e) idatz-zatia. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«a) *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herri-alorrean:*

- *Sailburuorde, idazkari nagusi, zuzendari edo Administrazioako aukerango izendapenezko, horiei atxikiriko, beste zein kargu.*
- *Euskal sozietate publikoetan edo nagusiki horiek parte-hartzen duten sozietateetan lehendakari, zuzendari nagusi, gerente edo horien pareko beste edozein kargu betetzen dutenak, aurreko karguen pareko funtzio betearazleak dituztenak.*
- *Lehendakari, Zuzendari Nagusi, Idazkari Nagusi edo erakunde burujabeetako zein norbanako-alorreko legepeko erakunde-izaikietako aukerango izendapenezko beste zein kargu. Alabaina, Eusko Legebiltzarrerako kideak, herri-erakunde, izaiki edo zuzeneko nahiz zeharkako herri-partaidetzazko enpresetako zuzendaritzako baltzuango ihardutze-sail edo Arduratze-Batzordetakoak izan daitezke, horien izendapena Eusko Legebiltzarrerari baldin badagokio.*
- *Ararteko edo Arartekoaren Laguntzaile; Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko Buru edo Kide; Ebazpen-Batzordeko Buru edo Kide; Ekonomi eta Gizarte-Kontseiluko Buru; eta erakunde horietan diharduten aukerango izendapenezko kargu.*
- *Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusia, erakunde hori osatzen duten sozietate publikoetako zuzendariak eta organikoki sozietate horietan kokatzen diren komunikabideetako zuzendariak.»*

Bigarren artikulua.- Aldatu egin dira Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen 4. artikuluko 3. paragrafoaren b) idatz-zatiko bigarren eta hirugarren lerroak. Aurrerantzean honela idatzita geratuko dira:

«- *Gobernuko lehendakariak, ministroak eta idazkari nagusiak, eta baita Estatuko administrazioan izendapen askekoa den beste edozein kargu betetzen dutenak; Estatuko gobernua Euskadin dituen ordezkariak edo ordezkariordeak, eta antzeko beste agintariak, lurraldearen arabera beste eskumen batzuk izan arren; zuzenbide publikoko erakundeetan, erakunde autonomoetan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, estatuko sozietate publikoetan edo estatuaren zuzeneko edo zeharkako partaidetza dutenetan, lehendakari, zuzendari nagusi edo idazkari nagusi direnak, edo izendapen askeko beste edozein kargu betetzen dutenak, edo kargu horien pareko funtzio betearazleak dituztenak. Atzerriko estatu baten edo nazioarteko erakunde baten aurrean izendapen bidez misio-buru direnak, egoitza atzerriko leku horretan izanda. Espainiako Bankuko gobernariak eta gobernariordeak; Mailegu Ofizialeko Erakundeko eta gainontzeko mailegu-erakunde ofizialetako lehendakariak eta zuzendariak. Hautesle Erroldaren Bulegoko zuzendariak eta Segurtasun Nuklearreko Kontseilu Nagusiko lehendakariak, kontseilariak eta idazkari nagusiak.*

- Estatuaren azpitik dauden lurralde-eremuetan, ministerioko maila goreneko kargua betetzen dutenek; lurralde-eskumen mugatua duten erakunde autonomoetan lehendakari, zuzendari edo horien pareko karguak betetzen dituztenek, edo lurralde-eremu horietan gobernuaren ordezkari direnek; RTVE korporazioaren lurralde-ordezkari direnek; Gizarte Segurantza lurralde bakoitzean kudeatzen duten erakundeetako lehendakari eta zuzendariak; Gobernuaren ordezkari eta ordezkariordetzetako idazkari nagusiek; Hautesle Erroldaren Bulegoko probintziako ordezkariak; horiek guztiak osorik edo zati batean beren jurisdikzioan sartzen diren hauteskunde-zirkunskripzioetan joango dira.»

Hirugarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 4. artikuluko 3. paragrafoaren e) idatz-zatia. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«e) Lurralde Historikoen eta toki-administrazioen arlo publikoan:

- Lurralde Historikoko administrazio publikoko zuzendari nagusiek edo kargu horren baliokideek.

- Erakunde autonomoetako, tokiko sozietate publikoetako edo Lurralde Historikoetako erakundeetan lehendakari, zuzendari nagusi, gerente edo horien pareko beste edozein kargu betetzen dutenek. Dena den, hautagai izateko aukera izango dute diputatu nagusiek edo foru-diputatuek, alkateek edo zinegotziek, baldin eta erakunde edo sozietate horietako berezko kide badira, hain zuzen ere erakunde edo sozietate horien estatutuetan hala dagoelako berriaz aurreikusita.»

Laugarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 4. artikuluko 4. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«4.- Artikulu honetako 3. paragrafoa a), b) eta e) idatz-zatietan aipatzen diren erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko edo sozietateetan lehendakari, zuzendari nagusi, idazkari nagusi, gerente edo horien pareko beste edozein kargu betetzeko aplikatu beharreko hautaezintasun-araubidea zein den zehazteko, kontuan izanda horien kapital sozialean administrazio publiko batek baino gehiagok parte hartzen duela, akzio gehien edo parte-hartze handiena duen administrazioaren hautaezintasun-araubidea bete beharko da. Berdintasun-kasuetan, hautagai-zerrendaren lurraldea ordezkatzeko duena izango da zein hautaezintasun-araubide aplikatuko den erabakiko duena.»

Bosgarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 4. artikuluko 5. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«5.- Artikulu honen 3. idazatian esandako kargu edo egitekoren batean ihardun eta hautagai gisa aurkeztu daitezenez, hautaezina dakarren kargua edo egitekoa erabat edo aldi baterako utzi egin dutela modu sinesgarriz egiaztatu beharko dute dagokien Hauteskunde-Batzordearen aurrean.»

Seigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 4. artikuluko 6. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«6.- Hautagai-zerrenda bateko izan eta hautaezintzat jotako kargu edo egitekoren batera iritsi daitezenez, egoera hori dagokion Hauteskunde-Batzordeari jakinarazi beharko diote, eta honek aurkezturiko hautagai-zerrendatik hautagaia kentzea aldarrikatuko du.»

Zazpigarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 4. artikuluari 7. paragrafoa erantsi zaio. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legea aldatzeko Lege-Proiektua (bosgarren aldaketa).

«7.- Azkenik, hautaezinak izango dira:

a) Askatasunik gabeko zigorrera epai irmoz zigortuak, zigorra indarrean den garaian.

b) Epai bidez (nahiz eta irmoa ez izan) kondenatu dituzten pertsonak, baldin eta administrazio publikoaren aurkako edo Estatuko erakundeen aurkako matxinada edo terrorismo delitua gertatu bada, eta epaiak hautatua izateko desgaitasun-zigorra edo enplegu edo kargu publikoa betetzeko erabateko desgaitasun edo desgaitasun berezia eskatzen duen zigorra jarri badu, zigor arloko legedian aurreikusten den moduan.»

Zortzigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 5. artikuluko 2. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«2.- Dena den, hauteskundeak izan eta gero epai irmo bidez legez kanpo utzitako alderdi, federazio edo koalizioek aurkeztutako zerrendetan joateagatik Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide hautatu dituztenek bateraezintasuna izango dute; eta beste horrenbeste gertatuko da epai irmo bidez, legez kanpo utzitako alderdi bati loturik daudela jotako hautesle-taldeek aurkeztutako hautagai-zerrendetatik hautatutako legebiltzarkideekin.

Bateraezintasuna hamabost egun natural igarotakoan sartuko da indarrean, hain zuzen ere Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-Batzordeak interesatuari bateraezintasunaren arrazoia zein den jakinarazten dionetik zenbatzen hasita. Bateraezintasuna indarrean ez sartzeko salbuespena izango da pertsona horrek, bere borondatez, hauteskunde-batzorde horretan berriaz eta zalantzarik gabe adieraztea dena delako federazio edo koalizioko kide izateagatik alderdi jakin bat legez kanpo uzteko arrazoietatik bereizten dela, eta arrazoi horiek arbuizatu dituela; hori guztia aipagai dugun pertsona alderdi horren edo alderdi horri atxikitako hautesle-talde baten zerrendetan joanda hautatu dutelako egin beharko du.

Era berean, behin betiko bateraezintasuna izango du legebiltzarkide batek, agintaldian aurreko paragrafoan aipatutako adierazpenari buruz atzera egiten badu, edo kontraesanak baldin baditu, hain zuzen ere ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorri buruzko 5/1985 Lege Organikoaren 6.4. artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Bateraezintasun horrek eragiten dion legebiltzarkideak eta, hala behar duenetan, Estatuko gobernuak, Estatuko abokatutzaren eta Ministerio Fiskalaren bidez, lege organiko horren 49.5 artikuluan aurreikusitako errekurtsioa aurkezteko aukera izango dute.

Bateraezintasunen araubide bera beteko da legez kanpo utzitako alderditik hutsik geratu den jarlekua betetzeko aurkeztuko diren gainerako kideekin, eta baita ordezkoeekin ere.»

Bederatzigarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 5. artikulua egungo 2. paragrafoa artikuluko 3. paragrafoa izango da.

Hamargarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 29. artikuluko e) idatz-zatia. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«e) Lurralde Historikoko eta eskualdeko hauteskunde-batzordeek hauteskundeei buruzko araudia aplikatzeko orduan interpretazioak egitean dituzten irizpideak bateratzea.»

Hamaikagarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 29. artikuluko j) idatz-zatia. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«j) Sortzen diren arau-hausteak zuzentzea, baldin eta hori egiteko lana epaitegien esku utzi ez bada, eta egoki irizitako isunak jartzea, 2.700 eurora arte, baina lege honen 87.7, 132 eta 132 Sexies artikuluetan xedatutakoetan izan ezik.»

Hamabigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 30. artikuluko 1. paragrafoaren d) idatz-zatiko lehenengo lerrokada. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«d) Sortzen diren arau-hausteak zuzentzea, baldin eta hori egiteko lana epaitegien esku utzi ez bada, eta egoki irizitako isunak jartzea; isunok 1.200 eurora artekoak izango dira, Lurralde Historikoko hauteskunde-batzordeen kasuan, eta 600 eurora artekoak eskualdeko hauteskunde-batzordeen kasuan. Hauteskunde-batzorde horiek gaiaren larritasunagatik beren eskumenekoak baino zehapen handiagoa behar duten gertakarien berri izango balute, horien berri hierarkikoki gorago dagoen hauteskunde-batzordeari jakinarazi beharko liokete, baina lege honen 66, 87.7, 132 eta 132 Sexies artikuluetan aipatzen diren kasuetan izan ezik.»

Hamahirugarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 38. artikuluko 3. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«3.- Hauteskundeetarako atal, mahai eta lekuen behin betiko zerrenda euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko du Hauteskunde Erroldaren Bulegoak, internet bidez, bozketa izan baino hamar egun lehenago, eta horrekin batera, udaletan ere jendaurrean jarriko da informazio hori.»

Hamalagarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 42. artikuluko 3. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«3.- Hauteskunde-mahaietan titular edo ordezkoko gisa parte hartzerik ez dutela adierazteko aukera izango dute, beharrezko agiriak edo, hala behar duenean, medikuaren egiaztagiria aurkezturik, ondorengoek:

- a) Gaixorik edo ospitalean diren pertsonak.
- b) Hauteskunde-barrutitik kanpora bizi direnek.
- c) Itsasoan direnek.
- d) Lege honetan ezarritakoaren arabera hautaezinak direnek.
- e) Haurdunaldian seigarren hilabetetik aurrera eginda dauden emakumeek eta amatasun-atsedenaren aldia daudenek.
- f) 9 hilabetera arteko haurrari bularra ematen ari direnek.
- g) 65 urte dituztenek edo hortik gorakoek.
- h) Beste edozeinek, ezina zuzitzeko arrazoiren bat badu eta agiri bidez frogatzen badu.»

Hamabosgarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 43. artikuluko 2. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«2.- Mahai bakoitzeko lehendakaria eta kideak zozketa publiko bidez aukeratuko dituzte, kasuan kasuko mahaiko erroldan ageri diren guztien artetik, baina irakurtzen eta idazten jakin eta hirurogeita hamar urte baino gutxiago dutenak izan beharko dute. Hirurogeita bost urtetik gorakoek uko egin ahal izango diote karguari zazpi eguneko epean. Mahaiko lehendakariak Batxilergoko edo Lanbide Heziketako bigarren mailako titulua izan beharko du gutxienez, edo halakorik ezean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuarena edo horren baliokidea.»

Hamaseigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 44. artikuluko 1. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«1.- Izendapena egin eta hurrengo hiru egun igaro baino lehen, horren berri eman beharko zaie interesatuei. Jakinarazpenarekin batera, mahaletako kideei izango dituzten eginkizunei buruzko eskuliburu bat emango zaie. Hauteskunde-mahaletako lehendakari eta kide izendatu dituztenek zazpi eguneko epea izango dute Eskualdeko Hauteskunde-Batzordean adierazteko zergatik ezin duten kargua onartu; zuzitzeko moduko arrazoia izan beharko du, eta agiri bidez frogatzeko modukoa. Hauteskunde-Batzordeak gaiari buruzko erabakia hartzeko bost eguneko epea izango du, eta ezingo da errekurtsorik jarri erabakitakoaren aurka. Dena delako pertsona ordezkatu beharra dagoela erabakitzen badu, horren berri emango dio lehen ordezkari. Eskualdeetako hauteskunde-batzordeek, labur bada ere, azaldu egin beharko dute zergatik ez dituzten onartu dena delako pertsonak mahaiko kide ez izateko emandako arrazoiak.»

Hamazazpigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 46. artikuluko 3. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«3.- Dekretuan bozketa noiz izango den zehaztuko da; han zuzen ere, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, berrogeita hamalaugarren egunean izan beharko da.»

Hemezortzigarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 46. artikuluari 4. paragrafoa erantsi zaio. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«4.- Hauteskundeetarako deia egiteko Dekretua argitara dadin egunean bertan jarriko da indarrean.»

Hemeretzigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 66. artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«66. artikulua.- Zigorra hautagaitza kentzeagatik.

Lurralde Historikoetako Hauteskunde Batzordeek 2.700 euro arteko isuna jarriko diete alderdi, federazio, koalizio eta hautesle-taldee, eta hala behar badu, hautagai, horien hautagaitzerrendak aldarrikatu eta gero, beren hautagai-zerrenda osoa hauteskundeetatik kentzen badute.»

Hogeigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 68. artikuluko 3. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«3. Hauteskunde-prozesuan, Eusko Jaurlaritzak kanpaina instituzional bat egiteko aukera izango du, ondorengoak jakinarazteko herritarrei: hauteskundeak noiz eta non izango diren, nortzuk diren hautesleak, nola bozkatzeko den, posta bidez bozkatzeko zer egin behar den, eta bozkatzeko prozesuari buruzko bestelako inguruabar guztien berri emateko; hori egitean ez du, inoiz ere, hautesleen boto-aukeran eragin beharko. Kanpaina instituzional hori iragartzeko, autonomia-erkidegoarenak diren hedabide publikoetako doako tartek baliatuko ditu gobernua, eta baita estatuarenak izanik ere, dena delako autonomia-erkidegora mugatzen diren hedabide publikoetako doako tartek.»

Hogeita batgarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legeari 68 bis artikulua erantsi zaio. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«68 bis artikulua.- Kanpaina instituzionalen mugak.

1.- *Hauteskundeen deialdia egiten denetik hauteskundeak benetan izan arteko denbora-tartean, aginte publikoek eta Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzko abenduaren 23ko 6/2010 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren erakundeek ezin izango dute publizitate-kanpainarik edo komunikazio instituzionalik egin edo horien berri hedatu; salbuespen bakarra lege honen 68.3 artikuluan esaten dena eta interes publikoa babesteko edo zerbitzu publikoak behar bezala aritzeko ezinbestekoa den komunikazioa izango da. Era berean, debekaturik egongo da aginte publikoek antolatutako edo finantzatutako edozein jarduera edo ospakizun, baldin eta horietan legegintzaldian egindakoen edo lortutakoen aipamenean bat egiten bada, edo horietan erabiltzen diren irudiak, adierazpenak edo logotipoak hauteskundeetan parte hartuko duen alderdiren batek erabiltzen dituenak edo antzekoak baldin badira.*

2. *Era berean, denbora tarte horretan ezin izango da obra edo zerbitzu publikorik edo horien proiekturik inauguratzeko ekitaldirik egin edo horren berri eman, eta aurkezpen edo erakusketarik ere ezin izango da egin; dena den, posible izango da obra edo zerbitzu horiek aldi horretan lanean hastea.*

3. *Artikulu honetan aurreikusten diren debekuak betetzen ez badira, arau-hauste horien ondorioz Hauteskunde-Administrazioak isuna jartzeko aukera izango du; Autonomia-Erkidegoko Hauteskunde-Batzordea bada isuna jartzen duena, 2.700 eurokoa izango da isun hori, eta Lurralde Historikoren bateko Hauteskunde-Batzordea bada isuna jartzen duena, 1.200 eurokoa.»*

Hogeita bigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 71. artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«71. artikulua.- *Kanpaina-aurreko debekuak.*

1.- *Lege honen 68. artikulua 2. paragrafoan jartzen den aldiak kanpo botoak bereganatzeko asmoa duten iragarpen-ekintzak egitea debekatu egiten zaie hautagai-zerrenda, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-taldeetako kideei. Hori hala izanik, administrazio publikoek eskaintzen dituzten baliabideak dohainik eskuratzeko aukera soil-soilik hauteskunde-kanpainak dirauen aldiaren egongo da.*

2.- *Baldin eta botoa eskatzen ez bada, alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-taldeek ideiak eta iritziak zabaltzeko eta, oro har, ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien egitekoak gauzatzeko ohiko jarduerak, eta bereziki, hautagaiak eta egitarauak aurkeztea, ez dira aurreko zenbakian araupetzen den debekuan sartuko.*

3.- *Hala eta guztiz ere, hauteskundeak deitzen direnetik hauteskunde-kanpaina legez hasi bitarte, alderdi politikoek eta hautagaiek ezin dute, zuzenean edo hirugarrenen bitartez, hauteskundeetako publizitatea edo propaganda jartzeko espazio, euskarri edo lekurik kontratatu, leku publikoak edo euskarri komertzialak (hesiak, hiri-altzariak, publizitate-objektu argidunak, kabinak, garraio-bideak edo parekoak) badira. Ezin da hauteskunde-propagandako iragarkirik egin prentsan edo aldizkarietan, irratan, interneteko publizitate-euskarrietan, telebistako kate komertzialetan edo bestelako bitarteko digitaletan.*

Halaber, arestian adierazitako epean, ezin izango da hautagaien izena edo argazkia edo talde politikoaren izena edo siglak adierazten dituen materialik banatu (giltzatak, boligrafoak, metxeroak, pinak edo pareko objektuak), hauteskundeetako propaganda egiteko. Debekatua dago etxe pribatuen kanpoko aldean hautagaien argazkiak edo alderdi politiko baten izena, siglak edo sinboloak jartzea.

4.- Talde politikoek edo hautagai-zerrendek aurreko atalean debekatutako jarduerak burutzen badituzte, ezingo dituzte alderdi politiko, federazio edo koalizioen ohiko funtzioen jardunarekin justifikatu.

5. Boto-emanketaren egunean ez eta bezperan ere, hautagai-zerrenda, alderi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-taldeetako kideek ez dute gizarte-adierazpideetan botoa hartzera jotzeko inolako agiriko agerpen eta adierazpenik egiterik izango.»

Hogeita hirugarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 72. artikulua 3. atala kendu da.

Hogeita laugarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 75. artikuluko 2. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«2.- Publizitate mota horretan hautagai-zerrenden gastua ezin da izan lege honen 147.2 artikuluan aurreikusitako gastu-mugaren 100eko 20 baino gehiago.»

Hogeita bosgarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 79. artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«79. artikulua.- Zigorra propaganda jartzeagatik

«Baimenik gabeko tokietan edozein motatako propaganda grafikoak jartzeagatik edo idazketak egiteagatik, Udalak 6.000 eurotarainoko zigorrak jarri ahal izango ditu, horretarako abiarazitako espedientearen bitartez eta doakionari entzun ondoren.»

Hogeita seigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen V. tituluaren II. kapituluaren laugarren ataleko izenburua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«Laugarren Atala
Hauteskunde-kanpainan komunikabideak erabiltzea»

Hogeita zazpigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 81. artikuluko 1. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«1.- Komunikabide publikoetan edota telebista pribatuetan ezin izango da hauteskundeetako iragarki-saiorik kontratatu.»

Hogeita zortzigarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 85. artikulua 1. paragrafoa izango da.

Hogeita bederatzigarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 85. artikulua 2. paragrafoa erantsi zaio. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«2.- Hauteskundeetarako deia egiten denetik hauteskunde-eguna izan arte, emisore pribatuek aniztasun- eta berdintasun-printzipioak errespetatu beharko dituzte eta proportzionaltasun- eta neutraltasun-printzipioak ere bai, Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 66.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.»

Hogeita hamargarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 87. artikuluko 7. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«7.- Bozketa egunaren aurreko bost egunetan debekatuta egongo da edozein komunikabidek, digitalet barne, hauteskundeei buruzko zundaketarik argitaratzea, horiek ezagutzera ematea eta erreproduzitzea.

Bozketa egunean ere, arratsaldeko 8:00ak baino lehenago debekatuta egongo da edozein komunikabidek hauteskundeei buruzko zundaketarik nahiz behin-behingo emaitzarik argitaratzea, horiek ezagutzera ematea eta erreproduzitzea.

Aurreko bi suposizioetan aurreikusitakoa betetzen ez bada, Hauteskunde Batzordeak 3.000 eta 30.000 euro bitarteko diru-zehapena ezarriko du.»

Hogeita hamaikagarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 88. artikuluko 1. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«1.- Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez, boto-txartelen eta gutunazalen eredu ofiziala eta horiek bete beharreko ezaugarriak zehaztuko ditu, baita hautestontzi, kabina eta lege honek aurreikusitako gainerako agirienak ere. Dekretu horretan zehaztuko dira boto-txartel, gutunazal eta gainerako hauteskunde-agiriak inprimatzeko, prestatzeko eta banatzeko baldintzak. Halaber, dekretu horretan finkatuko dira Eusko Jaurlaritzako web gunetik telematikoki jaitsi daitezkeen hauteskunde-inprimaki ofizialen ereduak.»

Hogeita hamabigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 104. artikuluko 3. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«3.- Irakurtzen ez dakiten hautesleek edo, ezintasun fisikoagatik, ezin badute boto-txartela aukeratu edo ezin badiote mahaiko lehendakariari eman, bere konfiantzazko pertsona batez baliatu ahal izango dute. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez, hautesle itsuek edo ikusmen ezintasuna dutenek bozkatzeko eskubidea baliatu ahal izateko prozedura arautuko du; horrela, pertsonalki eta erraztasunez eman ahal izango dute botoa, eta isilpeko botoa bermatuta.»

Hogeita hamahirugarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 107. artikuluko 1. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«1.- Hautesleak berak mahaiko lehendakariari botoaren gutunazala emango dio. Ondoren, horrek, uneoro gutunazala denek ikusteko moduan dela, ozenki esango ditu hauteslearen izen-abizenak, eta hau adieraziz: "BOTOA EMAN DU", hautesleari emango dio hautestontzian sar dezan.»

Hogeita hamalagarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen 115. artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«115 .artikulua.- Baliogabeko botoa.

a) Ereditu ofizialez besteko eskutitz-azal edo txartelez emandakoak, eta bai eskutitz-azalik gabeko txartelez emandakoak eta hautagai-zerrenda berezien boto-txartel bat baino gehiago daramatzan eskutitz-azalean emandakoak ere. Eskutitz-azal batean hautagai-zerrenda beraren txartel bat baino gehiago egotea gertatuz gero, boto bakar bat bait litzan kontatuko da.

b) Boto-txarteleko hautagaien izenak aldatuta, gehituta edo zirimarratuta edo bertako izenen hurrenkera aldatuta dituen txartelean emandako botoak.

c) *Irainak edo botoaz besteko edozein hitz edo esamolde daramatzan botoa edota borondatez edo nahita egindako edozein aldaketa duen botoa.*

d) *Eskutitz-azalak gainean ezaupideak daramatzatenak.»*

Hogeita hamabosgarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 132. artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«132. artikulua.- Hauteskunde-arauak haustea.

Aginduzko eta debekuzko hauteskunde-arauak haustea, delitua izan gabe, eskumena duen hauteskunde-batzordeak zigortuko du, lege honen 29.j) eta 30.1.d) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Isuna 300 eta 3.000 euro artekoa izango da agintariak edo funtzionarioak badira, eta partikularrak badira 100 eta 1.000 euro artekoa, lege honetan kopuru handiagoa ezartzen bada salbu.»

Hogeita hamaseigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 132 sexies artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«Eskumena duen hauteskunde-batzordeak 300 eta 3.000 euro arteko isunak ezarriko ditu agintariak edo funtzionarioak badira, eta 100 eta 1.000 euro artekoak partikularrak badira, salbu lege honek kopuru handiagoa ezartzen badie, hauteskunde-delitua izan gabe, boto elektronikoaren prozedurarekin lotutako arau-hauste hauetakoren bat egiten dutenei: (...).»

Hogeita hamazazpigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen V. tituluko XI. kapituluaren izenburua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

**«XI. KAPITULUA
POSTA BIDEZKO BOTOA»**

Hogeita hemezortzigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 132 octies artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«132 octies artikulua.- Ohiko posta bidezko botoa izapidetzea

1.- Bozketa egunean hautesleek aurreikusiz gero boto eskubideaz baliatzeko dagokien herrian ez direla egongo edo ezin direla bertaratu, postaz eman dezakete botoa, Hauteskundeen Erregimen Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 72. eta 73. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2.- Hauteskundeen deialdia egin eta gauzatu arte, atzerrian aldi baterako daudenek posta bidezko botoa eman dezakete, berme guztiekin, aipaturiko Lege Organikoaren 74. artikuluan ezarritakoaren eta hori garatzen duen indarreko hauteskunde araudian ezarritako prozeduraren arabera.»

Hogeita hemeretzigarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legeari 132 nonies artikulua erantsi zaio. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«132 nonies artikulua.- Bizilekua atzerrian duten espainiarrak.

Bizilekua atzerrian duten espainiarren hauteskunde-erroldan inskribatutako hautesleak aldeztu aurretik balia daitezke botoa emateko eskubideaz, Kontsuletzeko egoitzetan edo Bulegoetan horretarako jarritako hautestontzian botoa eta beharrezko dokumentazioa sartuz, edota posta

bidezko botoa emanez, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera.»

Berrogeigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 134. artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«134. artikulua.- Batzordeen erabakien kontrako errekurtsua.

1.- Lege honetan errekurtsua edo aurka egiteko bide judiziala ezartzen ez den bitartean eta lege honen 44.1 artikuluan aurreikusitakoa salbu, hauteskunde-batzordeen erabakien kontra errekurtsua jartzeko aukera egongo da goragoko kategoriako batzordearen aurrean; horrek hauteskunde-epe barruan ebazpena eman beharko du bost eguneko epean, eta, epe horretatik kanpo, hamar egunetan, bi kasuetan errekurtsua jartzen denetik kontaktzen hasita.

2.- Erabakia jakinarazi eta hurrengo hogeita lau orduen buruan aurkeztuko da errekurtsua, eman duen batzordearen aurrean; horrek, bere txostenarekin batera, erabakia eman behar duen batzordeari bidali beharko dio berrogeita zortzi orduko epean. Azken horren erabakiaren aurka ezin da administrazio-errekurtsorik aurkeztu.»

Berrogeita batgarren artikulua.- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 144. artikuluari 9. paragrafoa erantsi zaio. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«9.- Artikulu honen 7. paragrafoan aurreikusitako bigarren aurrerakina jaso ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak horrela adosten badu, alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeek ogasunaren ardura duen sailari aurkeztu beharko diote Eusko Legebiltzarreko Mahaiak emandako ziurtagiria. Horren bidez, zalantzarik gabe egiaztatuko da aipaturiko alderdi politikoen hautetsia Eusko Legebiltzarreko kide izatera heldu dela, baita hautatutako karguan benetan jardungo duela ere, aurrerakin hori sortu baita aukera horregatik. Halaber, aipatutako aurrerakina jaso ahal izateko, aipatutako alderdi politikoez ezingo dute beren zuzendaritza-organoetan epai batek, irmoa ez bada ere, zigortu duen pertsonarik eduki, matxinada edo terrorismo-delituengatik eta Estatuko erakundeen kontrako delitu larriak egiteagatik, zigor-legedian aurreikusten diren baldintzetan, salbu horiek jendaurrean baztertu badituzte erabilitako helburuak eta baliabideak.»

Berrogeita bigarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 145. artikuluko 4. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«4.- Edozein erakundek, pertsona fisikok edo juridikok 10.000 euro baino gehiagoko ekarpena egitea, deialdiko hauteskundeetarako alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-talde batek berak dirua biltzeko irekitako kontuetan.»

Berrogeita hirugarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 147. artikuluko 2. paragrafoa. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«2.- Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, hauteskunde-gastuen muga izango da alderdi, federazio, koalizio edo talde bakoitzak hautagai-zerrendak aurkezten dituen barrutietako legezko biztanleriari dagokion biztanleen kopurua 0,42 euroz biderkatzetik ateratzen dena. Eragiketa horretatik ateratzen den kopuru horri 202.400 euro gehitu ahal izango zaizkio hautagai-zerrendak aurkezten dituzten barruti bakoitzeko.»

Berrogeita laugarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 151. artikulua. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«151. artikulua.- Hauteskundeetako diru-laguntzak.

1. *Euskal Autonomia Erkidegoak diru-laguntzak emango ditu alderdi politiko, federazio, hauteskunde-koalizio edo -taldeen hauteskunde-gastuei aurre egiteko, arau hauen arabera:*

a) *25.900 euro Eusko Legebiltzarrean eskuratutako jarleku bakoitzeko.*

b) *Hautagai-zerrenda bakoitzak lortutako boto bakoitzeko 0,87 euro, betiere zerrenda-kide horietako batek gutxienez Legebiltzarreko jarlekua lortu badu dagokion hauteskunde-barrutian.*

c) *Hauteskunde-barruti bakoitzeko 41.900 euro, hauteskunde-barruti bakoitzeko gutxienez jarleku bat lortu dutenei.*

2.- *Aurreko paragrafoan aipaturiko diru-laguntzaz gain, diruz lagunduko dira propaganda, gutunazalak eta boto-txartelak edo bestelako hauteskunde-iragarkiak hautesleei zuzenean eta banan-banan bidaltzeak sortutako hauteskunde-gastuak, hurrengoaren arabera:*

a) *Hautesle bakoitzeko 0,22 euro ordainduko dira, baldin eta erreferentziako hautagaiek hautagai-zerrenda aurkeztu badute barruti horietako bakoitzean eta jarlekua lortu badute.*

b) *Diruz lagundutako kopurua ez da egongo lege honen 147. artikuluan aurreikusitako mugaren barruan, betiere paragrafo honek aipaturiko jardueraren benetako lotura egiaztatu bada.*

3.- *Artikulu honen 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako hauteskundeetako diru-laguntzen bai sortzapena bai kopurua alderdi politikoei ordaintzeko, Eusko Legebiltzarreko kide izatera heldu direla eta hautatutako karguan benetan jarduten dutela erakutsi beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak hala adostuz gero. Horiek egiaztatzea eta horien ziurtagiria egitea Eusko Legebiltzarreko gobernu-organoari dagokio.*

4.- *Era berean, alderdi politiko, federazio, hauteskunde-koalizio edo -taldeei ez zaie hauteskunde-gastuetarako diru-laguntzarik emango, baldin eta Alderdi Politikoen ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoaren 9. artikuluan alderdi politikoak legez kanpo uzteko aurreikusitako jokabideren bat egiten badute.*

5.- *Lehen aipaturiko hauteskundeetako diru-laguntzarik ez da alderdi politikoentzat sortuko, zuzendaritza-organoetan epai batek, irmoa ez bada ere, zigortu dituen pertsonak badaude, matxinada edo terrorismo-delituengatik eta Estatuko erakundeen kontrako delitu larriak egiteagatik, zigor-legedian aurreikusten diren baldintzetan, salbu horiek jendaurrean baztertu badituzte erabilitako helburuak eta baliabideak.*

6.- *Politika-talde bakoitzari emandako hauteskundeetarako diru-laguntzak ez du aitortutako eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak bidezkozkat jotako hauteskunde-gastuetako kopurua baino handiagoa izan behar.»*

Berrogeita bosgarren artikulua.- Aldatu egin da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legearen laugarren xedapen gehigarria. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:

«Laugarrena.- *Lege honetan aurreikusitako zenbatekoak euro konstanteei dagozkie. Eusko Jaurlaritzan ogasunaren ardura duen sailaren aginduz, zenbateko horiek eguneratu egingo dira hauteskundeetarako deia egin eta hurrengo zazpi egunetan.»*

XEDAPEN GEHIGARRIAK.- **Hauteskundeetako diru-laguntzak eguneratzea.**

LEHENA.- Hautagaiei jarleku, boto eta hauteskunde-barrutien arabera ematen zaizkien diru-laguntzak eta hauteskunde-publizitate eta -propaganda bidaltzearekin lotutakoak 2011ko otsailaren 1ean eguneratu dira, lege honen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

BIGARRENA.- Sistema elektronikoen testak.

1.- Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen zaio Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan beharrezkotzat jotako proba pilotuak egiteko, autonomia-erkidegoko prozesuari hobekien egokitzen zaizkion teknologia berriak erabilia, teknologia horiek ezartzea posible den aztertzeko xedez.

2.- Nolanahi ere, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera probatu beharreko sistemek botoaren isilpekotasuna eta zenbaketaren gardentasuna bermatu beharko dituzte.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA.- Gastuaren mugak murriztea.

2009 ondorengo Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeetan, lege honen 147.2 artikuluan aurreikusitako hautagai-zerrendetako hauteskunde-gastuaren muga ehuneko 15 murriztuko da eguneratutako zenbatekoaren gaineratik, ogasunaren ardura duen sailaren aginduz, hauteskunde autonomikoetarako deialdia izan eta hurrengo zazpi egunetan.

BIGARRENA.- Hauteskundeetako diru-laguntzak izoztea.

Hautagai-zerrendei hauteskundeetarako ematen zaizkien diru-laguntza publikoen zenbatekoak, bai boto, jarleku eta hauteskunde-barrutiko ematen zaizkienak, bai lege honen 151.1 eta 2 artikuluan aurreikusitako hauteskunde-publizitate eta -propaganda bidaltzearekin lotutakoak, izoztutzat joko dira 2011ko abenduaren 31n, Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak egingo diren urteko ekitaldirako.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak.

Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez ezarriko ditu irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren baldintzak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak garatu bitartean, Ezintasuna duten pertsonen aukeraberdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun orokorrari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Estatuko Legearen Bosgarren Azken Xedapenean aurreikusitakoaren arabera.

BIGARRENA.- Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.